


## Aurkibidea



1.	<b>Lan-egitasmoa</b> .....	78
2.	<b>Herritarrekin hizketan</b> .....	79
	Eta orain zer egin behar dut?	
3.	<b>Inprimakiak betetzen</b> .....	81
	Zein ote da?	
4.	<b>Testuak lantzen</b> .....	85
	Adinik ez, erantzun beharrak bai, ordea	
5.	<b>Epaitegiko hiztegia</b> .....	94
	Hitza, berba, elea...	
6.	<b>Unitatearen laburpena</b> .....	99
7.	<b>Autoebaluazioa</b> .....	104
8.	<b>Zuzenketa-orriak</b> .....	114



### 1. Lan-egitasmoa

- Unitate honetan adingabekoei lotutako auziez jardungo dugu gehienbat. Alde batetik, jende aurreko egoerak landuko ditugu, bai epaitegiko sarreran gertatzen direnak, bai prozesuan zehar gertatzen direnak. Eta ahalik eta errealean izaten saiatuko gara, egoera horietan erabiltzen diren idatziak eta herritarren idatzizko eta ahozko zalantzak eta galderak landuz.



## 2. Herritarrekin hizketan

### Eta orain zer egin behar dut?

■ Hasteko, beheko galderari erantzuten saiatuko zarete, taldeka jarrita. Hori egin eta gero, ikastaldean adieraziko duzue garrantzizkoena.

- Zein izaten dira adingabekoen epaitegietan gehien salatzen diren delituak?
- Salatutako gazte gehienak kolektibo batekoak dira ala denetik dago?
- Zein izaten da gazteen jarrera?
- Eta gurasoena?
- Eta demandatzailearena?
- Zein izan da tokatu zaizun egoerarik gogorrena?



Orain, bi taldetan banatuko zarete eta elkarrizketa bana entzungo duzue **(CDaren 19. -01:14- eta 20. pista -01:12-)**. Talde bakoitzak elkarrizketaren hasiera baino ez duzue entzungo, zuen lana elkarrizketa osatzea izango da: herritarrek eskatzen duen informazioa modu egokian ematen ahaleginduko zarete. Taldean, lagungarri gisa, herritarrek jaso duen idatzia izango duzue, baina gaztelaniazko bertsioa. Taldekideok ahoz eta txandaka osatu egin beharko duzue elkarrizketa.

■ Talde bakoitzak, egokitu zaion lana bukatutakoan, beste taldearen elkarrizketa osorik entzungo du, ondoren, talde horren lana ebaluatu ahal izateko.

■ Iritsi zaizue ikastaldearen aurrean azalpena egiteko unea.


■ Talde batek lana azaldu ostean, beste taldeak ebaluatu egingo du, azalpenak ulergarriak diren ala ez kontuan hartuta.

## 07 ADINGABEKOAK

---

■ Ezagutzen al duzu DEZAKEZU aditz forma? Saia zaitetz esaldi hauetan dauden hutsuneak betetzen, aditz laguntzaile egokia erabiliz.

1. Nahi izanez gero, abokatu partikularra izendatu .....(zuek).
2. Zitazio bat jasoz gero, ezin ..... huts egin, etorri beharrean zaude.
3. Agertu ezean, demandatuak arazoak izan .....(hark).
4. Hala ere, kalte-galeren ordaina eskatu ..... (zuk).
5. Guk ezin ..... ezer egin.
6. Ondo azaltzen badidazu, dauzkazun zalantzak argitu .....(nik).
7. Kaltetuak ezin ..... hori eskatu (hark).



### 3. Inprimakiak betetzen



#### Zein ote da?

- Irakasleak zenbait galdera idatziko ditu arbelean. Irakur itzazue arretaz eta saia zaitezte erantzuten. Ikastaldean egingo denez gero, erantzunak adostu egin beharko dituzue.
- Orain, hirunaka jarriko zarete eta irakasleak talde bakoitzari inprimaki bat emango dio. Inprimaki horietako zenbait zati gaztelaniaz daude eta zuen lana euskaraz jartzea izango da.
- Irakasleak euskarazko bertsiok banatuko dizkizue, egindako lana zuzendu dezazuen.
- Tokatu zaizuen inprimakiaren deskribapena egingo duzue denen aurrean, besteek zein inprimaki den asma dezaten. Ez duzue, jakina, inprimakiaren izenburua aipatu behar.
- Denon artean erabakiko duzue zein den zuen eguneroko lanean gehien erabiltzen duzuen inprimakia eta zein zailtasun daukan euskaraz jartzerakoan.

### ■ “Epaileak demandatua etorraziko du”

Ezagutzen al duzu ARAZI aditza? Saia zaitetz esaldi hauetan gaztelaniaz dagoena euskaratzen, ARAZI erabiliz. Zalantzarik izanez gero, jo “Unitatearen laborpe-na” atalera, bertan duzu-eta azalpen txiki bat.

1. Hasieran ez zuen deklaratu nahi, baina epaileak .....  
..... (le ha hecho hablar)
2. Eskatutako frogak .....  
(nos han hecho presentar)
3. Auzia artxibatua izan dela ..... (me has hecho saber)
4. Judizio-aretoan garrasika hasi zen eta poliziek .....  
..... (le hicieron salir)
5. Demandatzaileari ..... (le han hecho saber)  
kalte-galerak erreklama ditzakeela.
6. Zehaztutako egunean azaltzen ez bazarete, 1.000 euroko isuna  
..... (os harán pagar)



■ “Lekuko en agerraldiaren ziurtagiria” desordenatuta duzu. Saia zaitetz ordenatzen, gaztelaniazko bertsioa lagungarri gisa duzula.

LEKUKOEN AGERRALDIAREN ZIURTAGIRIA

- IZO: ... identifikazio-zenbaki orokorra...
  - Abokatua: ... abokatuaren izen-abizenak...
  - Organo judizial honek ...izen-abizenak... jn./and. Zitatu zuen .....-{e)n, goian aipatutako auzian lekuko gisa deklaratu zezan.
  - Zitazioan agindu bezala, ...izen-abizenak... jn./and. Auzitegi honetan agertu da ..... -{e)an, eta agerraldiak .....-{e)tatik .....  
.....-{e)tara irauten du.
  - ONDOKOA ZIURTATZEN DUT:  
.....-{e)KO ADINGABEEN .....ZK.KO EPAITEGIA
  - Faxe:
  - ...auto-zk... - ...prozedura-sekzioa...
  - Organo judizial honek ez dio inongo kalte-ordainik eman.
  - Fiskaltza-zk.: ...jatorrizko prozeduraren zk...
  - Deklaratzera deitzeko arrazoia ez da izan auziko gertakarietan funtzionario gisa, edo Estatuko EAEko nahiz tokiko Administrazioaren mende dauden Segurtasun Indar eta kidegoetako kide gisa parte hartu izana.
  - Atestatu-zk.:
  - Adingabea:...izen-abizenak...
  - .....-{e)KO ADINGABEEN ..... ZK.KO EPAITEGIKO
- IDAZKARI JUDIZIALAK
- Ez da demandatu gisa agertu.
  - IDAZKARI JUDIZIALA
  - ...organo judizialaren egoitza...
  - Telefonoa: ...organo judizialaren telefono-zk....
  - Salatutako egitatea:
  - .....-{e)n, ..... -{e)ean.

CERTIFICACIÓN ASISTENCIA TESTIGOS
JUZGADO DE MENORES N <sup>o</sup> ...número de juzgado... DE ...nombre de la ciudad...
...domicilio del órgano judicial...
Teléfono: ...n <sup>o</sup> teléfono órgano judicial...
Fax: ...n <sup>o</sup> fax órgano judicial...
...n <sup>o</sup> autos...-...sección de procedimiento...
N <sup>o</sup> fiscalía: ...número de procedimiento origen...
NIG: ...número de identificación general...
N <sup>o</sup> atestado: ...origen de la denuncia...; ...atestado...
Hecho denunciado: ...hecho denunciado...
Menor: ...nombre y apellidos...
Abogado: ...nombre completo abogado...
D./DÑA. ...nombre y apellidos del secretario..., SECRETARIO JUDICIAL DEL JUZGADO DE MENORES N <sup>o</sup> ...número de juzgado... DE ...nombre de la ciudad...
CERTIFICO:
1.- Que D./Dña. ...nombre y apellidos..., citado/a por este Órgano Judicial en ...localidad desde donde ha sido citado... a fin de declarar como testigo en la causa de referencia, ha comparecido a tal efecto el día ...fecha comparecencia... desde las ...hora inicio comparecencia... hasta las ...hora fin comparecencia... horas.
2.- Que no ha percibido indemnización alguna por parte de este Órgano Judicial.
3.- Que no ha comparecido en calidad de demandado/a.
4.- Que no ha sido llamado/a a declarar por haber intervenido en los hechos objeto de la causa desempeñando su cometido como funcionario/a, o como miembro de los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad dependientes de la Administración Estatal, Autonómica o Local.
En ...nombre de la ciudad..., a ...fecha literal...
EL/LA SECRETARIO/A JUDICIAL



4. Testuak lantzen **Adinik ez, erantzun beharrak bai, ordea**

Gazteekiko eta delinkuentziarekiko lotura daukaten zenbait argazki eta esaldi dituzue hemen. Taldeka jarriko zarete, gaiaren inguruko hausnarketa egiteko: nor bere iritzia emango du.



- “Bereizkuntzaren bat duten gazte guztiak susmagarri bilakatzen dira”.
- “Belarrietarako asmatua ez dagoena beste nonbait kokatzeko ausardia duenak susmo txarrak sortarazten ditu”.
- “Gaur egungo gazteek ez dakite dibertitzen, edan eta erre, besterik ez”.
- “Zer edo zer egingo zuen”.
- “Intsumiso egin naiz eta...”

- Adingabekoen erantzukizun penalari buruzko testu bat duzue aurrean. Taldeka jarrita, informazio-koadroa osatzen saiatuko zarete.

### ADINGABEKOEN ERANTZUKIZUN PENALA

#### I. Urtarrilaren 12ko 5/2000 legearen aplikazioa

2001eko urtarrilaren 13an, Adingabekoen Erantzukizun Penalaren Arautzen duen Legea indarrean sartu da. Egun horretatik aurrera Legea ondorengo pertsona hauei aplikatzen zaie:

- a) 14 eta 18 urte bitarteko adingabekoei, Kode Penalean edo lege penal berezietan delituztat edo faltatzat hartzen den ekintza bat egin dutenean.
- b) 18 eta 21 urte bitarteko gazteei ekintza berdinegatik, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:
  - aurrekari penalak ez izatea,
  - ekintza delitu larria ez izatea,
  - pertsonak bortxatu edo larderiatu gabe, eta biktimen bizitza edo gorputz osotasunarentzat arrisku larririk gabe gertatu izana.

#### 2. Prozedura honetan esku hartzen duten pertsonak

- Adingabekoek egindako arau-hausteengatik epaitzeko eta epaiak betetzeko eskumena adin gabekoen epaitegiarena da. Epaitegi horien egoitza Bilbo, Donostia eta Gasteizko Justizia jauregietan dago. Adingabekoen epailea, alor horretako magistratu espezialista da.
- Adingabekoen fiskala prozeduraren izapidegintza osoaz (gertakariak ikertzeaz) arduratzen da epaiketa egin arte, eta horri entzualdia deritzo. Alor horretako fiskal espezialista da.
- Abokatuak adingabekoa defendatuz esku hartzen du, atxilotzen duten unetik aurrera. Abokatuak izan daiteke: partikularki izendatutakoa (adibidez, adingabekoaren familiak edo gazteak berak izendatutakoa). Hori ez dagoenean, ofizio txandako abokatuak izendatuko da, prozedura amaitu arte adingabekoaren defentsaz arduratuko dena. Hiriburu bakoitzean ofizio txanda espezializatu bat egongo da, alor honetan espezialistak diren abokatuaren kargura.
- Gainera, Justizia jauregi bakoitzean TALDE TEKNIKO BAT dago, adingabekoetan espezialistak diren psikologo, hezitzaile eta gizarte-langileez osatua. Horien zeregin nagusia, adingabekoa aztertu ondoren txostenak egitea da, epaileak adingabekoari neurririk egokienak ezartzeko.

### 3. Aplikatu daitezkeen neurriak

Arau-hausteren bat egin duten adingabeko edo gazteei aplikatzekoak zaizkien neurrien helburua ez da soilik zigorra jartzea, izan ere, helburu nagusia heztea baita.

Aplikatu daitezkeen neurriak ondoko hauek dira:

- Zentroan sartzea; zentroa itxia, erdi irekia edo irekia izan daiteke (adingabekoak zentroan egun osoa edo zati bat bakarrik egon behar duela kontuan izanik).
- Eguneko zentrorra joatea, prestakuntza-jarduerak egiteko.
- Zainpeko askatasuna, beste neurri batzuekin batera ezar daitekeena; adibidez: ikastetxe batera joatea, prestakuntza-jarduerak egitea...
- Elkartearen onurarako prestazioak (nahitaezko izaera ez duten mota horretako lanak), edo gizarte eta hezkuntza-zereginak egitea.
- Zentzarazpena.

Neurri hauek, egindako ekintzaren larritasuna eta adingabekoaren adina eta nortasuna kontuan izanik aplikatu dira.

Neurririk larriena, zentro itxi batean zortzi urtez sartzea izango da.

### 4. Adingabekoen atxiloketa

Ahalik eta modurik zehurrerenean egin beharko da, publizitaterik gabe (adibidez, ez da eskolako irteeran egin behar).

1. Atxiloketa egiten duen pertsonaren betebeharrak eta zereginak:

Atxilotuari berehala, argi eta garbi eta modu ulergarrian, gertakariaren, arrazoien eta dituen eskubideen berri ematea (bereziki, Prozedura Kriminaleko Legearen 520. artikuluan barne hartzen direnak).

2. Atxilotuaren deklarazioa:

**a)** Letratuaren eta legezko ordezkariaren aurrean. Horiek ezean, Ministerio Fiskalaren aurrean (fiskal instruktorea ez dena).

**b)** Lekua: egoitza egoki eta bananduetan. Adingabekoak behar dituen zainketak, babesa eta asistentzia.

**c)** Iraupena: gertakariak argitzeko behar den epea soil-soilik.

Gehieneko epea 24 ordukoa da (aske utziz / fiskalaren esku utziz), banda armatuekin edo pertsona terrorista edo asaldariekin erlazionatuta edo bertan sartuta dauden pertsonak salbu.

3. Fiskal instruktoreak, atxiloketa gertatu eta 48 orduko epearen barruan, ondokoa erabakiko du:

- Atxilotua aske uztea.
- Espedientea hastea edo artxibatzea.
- Epaileari kautelazko neurriak har ditzan eskatzea.

### 5. Kautelazko neurriak

Neurri horien helburua, prozeduran eta epaia eman aurretik adingabekoa zaintzea eta defendatzea da.

- Kautelazko neurri-motak:
- Zentro batean sartzea, dagokion erregimenean.

- Zainpeko askatasuna.
- Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea. Helburua, espedientaturik dagoen adingabekoaren zaintza eta defentsa da.

### 6. Adingabekoak prozeduran dituen eskubideak

- Dagozkion eskubideen berri izatea.
- Abokaturia izendatzea: partikularra edo ofiziozkoa, abokatuaren elkargoaren espezialista-txandaren kargura.
- Eginbideak eta probak egitea proposatu eta eskatzea.
- Epaileak entzutea, hari buruzko edozein ebazpen hartu aurretik.
- Asistentzia psikologikoa eta afektiboa.
- Talde teknikoaren zerbitzuen laguntza.

### 7. Prozeduraren aldiak

Prozedurak bi aldi ditu:

- Izapide-aldia, fiskalak zuzentzen duena.
- Entzute-aldia adingabekoen epailearen aurrean.

#### a) Fiskalaren izapidegintza

Ondokoa du helburu:

- Epaizten diren gertakarietan adingabekoaren parte-hartzea baloratzea.
- Adingabekoen epaileari adingabekoarentzat egokienak diren zigor-neurri hezitzaileak proposatzea.

Instrukzioko espedienteak amaitzea

Fiskalaren ustez eginbide guztiak burutu direnean, espedienteak adingabekoen epaileari bidaliko dio, entzute-aldia egiteko.

Fiskalak, era berean, espedienteak eten edo artxiba dezake:

- Gertakaria garrantzi txikikoa bada eta eskola edo familia-eremuan jadanik erantzun egokia izan badu...
- Adingabekoak 16 urte baino gehiago baditu.
- Talde teknikoak hala eskatzen badu, adingabeko arau-hauslearen eta biktimaren artean medeantza edo adiskidetzak gertatu delako.

#### b) Entzute-aldia

Delituengatik prozeduran ahozko epaiketaren baliokidea da. Adingabekoen epailearen aurrean, fiskalak eta adingabekoaren letratuak eskatutako probak egingo dira.

Entzun ondoren, adingabekoen epaileak epaia emango du.

Probintzia Auzitegiaren aurrean apelazioa egin daiteke.

Epaizta, gehienez, bi urteko eperako eten daiteke, ezarritako neurria bi urtetik gorakoa ez denean, ondorengo kasu hauetan:

- zigor edo neurri baten kondena irmoa ez dagoenean,
- gizarteratzeko konpromisoa hartzen denean,
- zainpeko askatasuna edo gizarte eta hezkuntza jarduerak hitzartzeko aukera dagoenean.

### 8. Neurriak betetzea

Adingabekoaren portaera aldatzen bada, epaian emandako neurriak alda daitezke.

Neurriak betetzeko zentroak Euskal Herrian:

- ANDOIU HEZKUNTZA ZENTROA  
Andollu (Araba), Gasteiztik Lizarrako errepideko 9. kilometroa.
- M.A REMIREZ HEZKUNTZA ZENTROA  
Ortuellako (Bizkaia) Urioste auzoa.
- MENDIXOLA HEZKUNTZA ZENTROA  
Aramaioko (Araba) Eguzkierripa auzoa.

### 9. Erantzukizun zibila




Delitu-ekintzaren ondorioz kalteren bat jasotzen dutenek, kalte-galerak erreklamatu ahal izango dituzte, adingabekoen epaitegian egiten den prozedura batean.


Ez badu pertsonalki erreklamutzen eta ez badio kalte-ordainari uko egiten, fiskalak erreklamazioa egingo du.

Kalte-ordainaren erantzulea ez da soilik ekintza egin zuen adingabekoa izango, zenbait kasutan beste pertsona batzuk ere izan daitezke: gurasoak, zaintzaileak...




07 ADINGABEKOAK





## 07 ADINGABEKOAK



■ Irakasleak arbelean jarriko du informazio-koadroa eta denon artean betetzen ahaleginduko zarete.

■ Amaitzeko, osatu gabeko esaldi batzuk dituzu. Saia zaitetz hutsuneak betetzen, hiru aukeretatik egokia hautatuz.


1. Talde teknikoaren zeregin nagusia txostenak ..... EGITEA / EGITEN / EGITEAK da.
2. Fiskala gertakariak ..... IKERTZEAREKIN / IKERTZEAZ / IKERTU arduratzen da.
3. Deklarazioak gertaerak ARGITZEN / ARGITZEKO / ARGITZERA behar den epea bakarrik iraun behar du.
4. Fiskalak espedientea ..... ARTXIBATZEA / ARTXIBATUZ / ARTXIBATZEKO erabaki dezake.
5. Epailleak, beharrezkoa bada, adingabekoa hezkuntza-talde batekin ..... BIZI / BIZITZEA / BIZITZERA behar dezake.
6. Izapide-aldiaren helburuetako bat zigor-neurri hezitzaileak .....PROPOSATU / PROPOSATZEA / PROPOSATZERI da.



 ETXEAN

■ Etxean egiteko ariketa bat proposatuko dizugu: aukeratu gai hauetako bat eta egin ezazu idazlan txiki bat gaiari buruz, zure iritzia jasoz.

- Adingabekoak, eskubideak bakarrik? Betebeharririk ez?
- Gazteak eta delinkuentzia. Noren errua ote?
- Zentro batean sartzea neurri egokia iruditzen al zaizu?



 **5. Epaitegiko hiztegia**

**Hitza, berba, elea...**

■ Hasteko, ondoko hitzak taulan ipintzen saiatuko zarete: ezkerreko eta erdiko zutabeetan epaitegietan erabiltzen direnak, eta eskuinean zerikusirik ez dutenak.

adingabe	epaitegi	irain
atsegin	epatze	jakinarazpen
aurre-kasu	erantzukizun	kemen
babes	ezindu	lurrin
bortxatu	ezkontide	orekatu
dastatu	fiskaltza	ospe
delitu	giltzapetu	pieza
egiaztapen	guraso-aginte	salaketa
egonkor	herritar	trebezia
epai	ikasgai	zedula

EPAITEGIAN ERABILTZEN DIRENAK		BESTELAKOAK
		
		
		
		
		
		
		
		
		
		

- Irakaslearen laguntzarekin aukeratutako hitz-multzoa baliatuz, gurutzegrama bat egingo duzue bikoteka. A ikasleak, goitik beherako definizioak irakurrita, goitik berako hitzak aurkitu beharko ditu hitz-zerrendan; eta B ikasleak, ezker-eskuinekoak irakurrita, ezker-eskuineko hitzak bilatu beharko ditu.

### GOITIK BEHERA:

1. Justizi administrazioan pertsona bakarreko organo juridikzionala.
2. Negozio juridikoak jasotzen dituen edozein motatako dokumentu edo agiria.  
Era askotakoak daude.
3. Egiaztatzearen ekintza eta ondorioa.
4. Obligazio pribatu nahiz publikoak betetzea, eta legeek agintzen duten guztia bete beharra; eta, hori egin ezean, egindako kalteak ordaindu beharra.
5. Ahalmen fisiko edo burukoaz baliatzerik ez duena.
6. Bere hartan egoteko, irauteko, ez aldatzeko joera duena.
7. Demandatuari edo beste norbaiti epaileak igortzen dion komunikazioa, egintza konkretu bat egitera epe jakin baten barruan auzitegira agertzeko aginduz.
8. Eragozpen eta erasoetatik gordetzen, zaintzen edo begiratzen duen zera.
9. Herri bateko kide edo biztanlea.
10. Zerbait deklaratzeko edo zerbaiti buruz erabakitzeko kontuan hartzen den lehenengo egitate, zirkunstantzia edo proposizioa.
11. Fiskalaren kargu eta jarduera.


### EZKER-ESKUIN:

1. Gaitasun juridikoa lortzeko legezko adinera oraindik heldu ez den pertsona.
2. Legean zigorturik dagoen ekintza.
3. Autoritate eskudunak funtzio edo kargu baterako formalki izendatzea da, bertan adierazten delarik eginkizun hartarako gaitasuna.
4. Gurasoek emantzipatu gabeko legezko umeen gain izaten duten boterea.
5. Emaztea edo senarra bata bestearekiko.
6. Prozesu batean auzi nagusitik aparte egiten, burutzen eta "auto" berezietan biltzen diren jarduketako bakoitza.
7. Espetxeratu.
8. Prozesu judizial batean edo administraziozko prozedura batean eman den erabakiaren berri interesatuei ematea.
9. Prozesuko egintza: pertsona zehatz batek bere jakitearen deklarazioa egitea; horrela, organo ofizial egokiak delitu-izaera bat egiaztatu eta santzionatu dezan.
10. Prozesuko erabaki nagusia. Horren bidez auziaren funtsa geratzen da erabakita eta amaitu egiten da instantzia edo helegitea.
11. Norbaitek beste pertsona bat indarkeriaz behartu berarekin sexu-harremanak izatera.

## 07 ADINGABEKOAK

---

■ Orain, binaka elkartu, eta gurutzegrama osatzen ahaleginduko zarete.



■ Saiaz zaitetz ondoko testuan dauden gaztelaniazko hitzak euskaratzen.

## Galderak eta erantzunak

### Nork eska dezake, baina, [Orden de Protección].....

Ondorengo pertsonak dira Babesteko Agindua eskatzea dutenak: biktima bera edo harekin [Código Penal].....eko 153. artikuluan aipatutako adeitasun-harremana duen edonor, hau da, [cónyuge].....ak edo biktimarekin ezkontzaren antzeko [relación de afectividad] ..... egonkorra izan duen edo duen pertsonak, biktimaren, ezkontidearen edo biktimaren bizikideren seme-alabak, haren ardurapekoak, harekin bizi diren aurrekoak edo [incapaces] ..... edo izatez biktimarekiko edo haren bizikidearekiko [potestad] ..... tutoretza, kuratela, harrera edo zaintza harremana dutenak. Epaileak edo [Ministerio Fiscal].....ak eskatuta ere egongo da Babesteko Agindua ematea.

### Non eskatu behar da Babesteko Agindua?

Babesteko Agindua zuzenean eska dakieke [autoridad judicial]..... ari, Fiskaltzari edo Segurtasuneko Indar eta Kidegoei, baita biktimari laguntzeko bulegoetan edo administrazio publikoen baitako [servicios sociales] ..... edo laguntza-erakundeetan ere.

### Nola eskatu Babesteko Agindua

Babesteko Agindua eskatzeko **formulario edo Babesteko Agindua** eskatzeko eredia taxutu da, eta ezinbestekoa da horrelako idazkiak zenbait erakundetan egotea: organo judizial guztietan zibil zein penaletan, fiskaltzetan, biktimari laguntzeko bulegoetan, herritarrari laguntzeko bulegoetan, [servicios de orientación de los colegios de abogados] .....etan, polizia-bulegoetan eta gizarte-zerbitzuetan eta laguntza erakundeetan.

[Solicitud]..... betetzeko jarraibideak berarekin batera doaz; nolana ere, komeniko litzateke eskabidea jasotzen duen organismoak biktimari berori betetzen laguntzea.

### **Zer egin behar da Babesteko Agindu bat jaso ondoren?**

Behin Babesteko Agindu bat formalizatu ondoren, berori jaso duen [organismo] .....ak kopia bat eman behar dio [solicitante] .....ari, beste bat gorde berarentzat, eta tokiko guardiako epaitegira jatorrizkoa bidali.

### **Zenbat Babesteko Agindu izan dezake pertsona batek?**

Biktima bakoitzari buruzko Babesteko Agindu bakarra egon daiteke. Aginduaren [contenido] ..... aldatzea egongo da, salatutako egoera aldatuz gero, baina ez da egongo aldi berean beste Babesteko Agindua egiterik.



6. Unitatearen laburpena 

## ADITZ-IZENA: ETORTZE

Aditz-izena, izenak berak adierazten duenez, izen bihurtutako aditza dugu. Eta esperokoa zenez, izaera bikoitza du: alde batetik izena da, baina aditzaren zenbait ezaugarri ere gordetzen ditu.

Aditz-izena, izena den aldetik, deklinatu egin daiteke. Hala ere, aditz-izenaren deklinazioak zenbait muga ditu. Horrela, esaterako, kasu gehienak har ditzake, baina ez NORANTZ eta NORENTZAT kasuak. Hona hemen kasurik erabilenak:

NOR	EGITEA	NORA	EGITERA
NORK	EGITEAK	NONDIK	EGITETIK
NORI	EGITEARI	NONGO	EGITEKO
NOREN	EGITEAREN	NORENGATIK	EGITEAGATIK
NON	EGITEN, EGITEAN	ZERTAZ	EGITEAZ

## Baina, nola jakin zein kasu erabili behar dugun?

Ea segidako taula honek laguntzen dizun:

## NOMINALIZAZIOA

-T(Z)EA	-T(Z)EN	-T(Z)ERA	-T(Z)EKO
Ahaztu	Ahaztu	Ausartu	Asmoa ukan
Bururatu	Amaitu/Bukatu	Behartu	Astian ukan
Debekatu	Ari izan	Bidali	Aukera ukan
Erabaki	Aspertu	Bortxatu	Beldur izan
Gomendatu	Egon	Bultzatu	Gai izan
Gustatu	Etorri	Ekarri	Gauza izan
Komeni	Hasi	Eraman	Gertu egon
Merezi izan	Ibili	Etorri	Gogoa ukan
Lortu	Ikasi/Irakatsi	Gonbidatu	Joera ukan
Pentsatu	Jakin	Heldu/Iritsi	Lotsa izan
Adj. + izan:	Jardun	Joan	Ohitura izan
Zaila da	Jarraitu/Segitu	Kondenatu	Ordua izan
Erraza...	Joan	Ohitu	Premia ukan
	Nekatu	Zigortu	Prest egon
	Lagundu		
	Ohitu		
	Saiatu/Ahalegindu		
	Utzi		

## 07 ADINGABEKOAK

### -T(Z)EAK

Beldurtu  
Eduki  
Esan nahi  
Harritu  
Kezkatu  
Konpondu  
Mindu

### -T(Z)ETIK

Bizi izan  
Etorri  
Heldu  
Itzuli  
Libratu

### -T(Z)EARI

Ekin  
Eman  
Iritzi  
Kezkatu  
Nekatu

### -T(Z)EAZ

Arduratu  
Aspertu  
Gogoratu

## ARAZI

- . Jon etorri da. Eta nik behartu baldin badut?
- . Jon etortzera behartu dut.  
Nola esango zenuke esaldi hau beste era batean? Bada, ARAZI erabiliz.

- . Nik Jon etortzera behartu dut
- . Nik Jon ETORRARAZI dut

Ikusiko dugunez, aditz arazlearen laguntzailea aldatu egiten da. Horrela, *nor* motako adizkiak *nor-nork* bihurtzen dira; *nor-nork* motako adizkiak, ordea, *nor-nori-nork*. Hona hemen eskema bat:

NOR	→	NOR-NORK	etorri DA	etorrarazi DUT
NOR-NORK	→	NOR-NORI-NORK	ekarri DU	ekarrarazi DIOT

Laburbilduz: **arazi** aditzaren erabilerak hiru arau hauek betetzen ditu:

- Aditzoinari eransten zaio zuzenean.
- Aspektu-marka **arazi** aditzaren atzean eransten dira.
- Aditz laguntzailea aldatu egiten da, beste pertsona bat sartuz gero.

Ortografia-arauak:

- Beti aditzari lotuta idatziko da: etorrarazi, hilarazi, jakinarazi...
- Zenbait aditzek "T" tartekau dezakete: ikustarazi (eta ikusarazi), sortarazi (eta sorrarazi)...
- Amaieran "A" daukaten aditzen kasuan, "A" bakarra idatziko da: antolarazi, errepiarazi, aterarazi...



# Hiztegia

Abeniko .....	Avenencia
Adiskidetze .....	Conciliación
Adiskidetze-akta .....	Acta de conciliación
Administratzaile .....	Administrador/a
Ahalmen .....	Poder
Ahalorde .....	Apoderado/a
Akats .....	Error
Akta .....	Acta
Alderdi betearazi .....	Parte ejecutada
Alderdi betearazle .....	Parte ejecutante
Alderdi demandatu .....	Parte demandada
Alderdi errekurritu .....	Parte recurrida
Alderdi errekurtsogile .....	Parte recurrente
Aldizkari Ofizial .....	Boletín Oficial
Alegazio .....	Alegación
Arrazoibide juridiko .....	Razonamiento jurídico
Artxibatu .....	Archivar
Atzera egin .....	Desistir
Aurrekari .....	Antecedente
Auto .....	Auto
Auzi .....	Litigio
Auzi-iheslari .....	Rebelde
Auzitegi Nagusi .....	Tribunal Superior
Bermatu .....	Garantizar
Berraztertze-errekurtso .....	Recurso de reposición
Berretsi .....	Confirmar
Bertaratu .....	Asistir
Betearazpen .....	Ejecución
Bidezko .....	Justo; legítimo
Demanda .....	Demanda
Ebazpen .....	Resolución
Ediktu .....	Edicto
Eginbide .....	Diligencia
Egitate frogatu .....	Hecho probado
Egitate .....	Hecho
Egoitza .....	Sede
Emaille .....	Otorgante
Embargo .....	Embargo

## 07 ADINGABEKOAK

Entitate sozial	Entidad social
Entzunaldi publiko	Audiencia pública
Epai	Sentencia
Epaitza	Sentencia
Erabaki	Decisión
Erantzukizun	Responsabilidad
Erregutze-errekurtso	Recurso de suplicación
Errekerimendu	Requerimiento
Errekurritu	Recurrir
Errekurtso	Recurso
Eskubide	Derecho
Espediente	Expediente
Exhorto	Exhorto
Finkatu	Establecer
Formalizazio-idazki	Escrito de formalización
Frogabide	Medio de prueba
Frogagiri	Justificante
Gai	Tema
Graduatu	Graduado/a
Hartzaile	Destinatario/a
Hitez hitzeko	Literal
Huts	Error
Idazkari judicial	Secretario/a judicial
Impugnatu	Impugnar
Iragarri	Anunciar
Irmozat jo	Declarar firme
Izapidetu	Tramitar
Izendatu	Nombrar
Izenpetu	Firmar
IZO	Número de identificación general
Jakinarazi	Hacer saber
Jarduketa	Actuación
Jatorriko epaitegi	Juzgado de origen
Judizio	Juicio
Karatula	Carátula
Kode	Código
Kolegiatu	Colegiado/a
Kondenatu	Condenado/a
Kopuru likido	Cantidad líquida
Kudeatzaile	Gerente
Lan-arloko epaitegi	Juzgado de lo social
Lan-istripu	Accidente laboral

Legezko ohartarazpen	Advertencia legal
Legezko ordezkari	Representante legal
Lekuko	Testigo
Letradu	Letrado/a
Magistratu	Magistrado/a
Nortasun juridiko	Personalidad jurídica
Nortasun-agiri	Carnet de identidad
Ofizio	Oficio
Ohartarazi	Avertir; apercibir
Onartu	Aceptar
Ondasun(ak)	Bienes
Ordainketa-etendura	Cesación de pagos
Ordezlagiri	Resguardo
Ordezkari	Representante
Organo judicial	Órgano judicial
Partaidetza	Participación
Parte-hartzaile	Participante
Pertsona fisiko	Persona física
Pertsona juridiko	Persona jurídica
Pieza	Pieza
Porroteko parte-hartzaile	Interviniente en quiebra
Prestazio	Prestación
Probidentzia	Providencia
Proposamen	Propuesta
Prozedura Zibileko Lege	Ley de Enjuiciamiento Civil
Prozedura	Procedimiento
Prozedura-zenbaki	Número de procedimiento
Publiko egin	Hacer público/a
Salbuespen	Excepción
Segurtasun-neurri	Medida de seguridad
Sindiko	Síndico
Sustatu	Promover
Xede	Fin; objeto
Zenbateko	Cantidad
Zigor-kode	Código Penal
Zitazio-zedula	Cédula de citación
Zordun	Deudor
Zuzenbideko oinarri	Fundamento legal



### 7. Autoebaluazioa

- Ba al dakizu zer den “Talde Psikosozial Judiziala”? Jarraian horixe bera azaltzen duen testu txiki bat duzu. Irakur ezazu arretaz ea berari buruzko galdera batzuei erantzuteko gai zaren.

#### Zer da Talde Psikosozial Judiziala?

Talde Psikosozial Judiziala Justizia Sailburuordetzaren menpeko organo teknikoa da; talde honen zeregina izango da jurisdikzio guztietako epaitegi, auzitegi eta fiskaltzei, eta batez ere zigor-arloko eta familiako jurisdikzioetakoei, bere espezializazio alorrean laguntzea eta aholkularitza teknikoa eskaintzea.

#### Nortzuek osatzen dute eta non du egoitza?

TPSJ psikologo, gizarte-laguntzaile, hezitzaile eta administrariez osatuta dago, koordinatzaile orokor batek eta lurralde koordinatzaileek zuzenduta. Lurralde eremuari dagokionez, Talde bat dauka Lurralde Historiko bakoitzean; Bizkaian, Bilbo eta Barakaldoko eraikin-judizialean dauzka egoitzak, Gipuzkoan Donostiako eraikin-judizialean eta Araban Gasteizkoan.

#### Zeintzuk dira bere zereginak?

Talde Psikosozial Judizialari, bakoitzari bere esparruan, honako funtzio hauek dagozkio:

- Organo judicial eta fiskalek hala eskatuta, peritu-txosten psikologiko, soziofamiliar eta gizarte-hezkuntzakoak ematea eta berauek epaiketetan defendatzea.
- Adingabekoen Erantzukizun Penaleko Legeak ezartzen duenari jarraituz, “talde teknikoak” egin beharrekoak diren eginkizunak betetzea.
- Adingabekoen onurarako diren prozesuetako froga/egintzetan magistratu eta fiskalei laguntzea.
- Legeak beren beregi ezartzen dituen bestelako parte-hartzeak.

Peritu-eginkizunetan Taldeak aditu izaera izango du honako arlo hauetan:

1. Adingabekoei dagokien gaitan: adingabekoen erantzukizun penala (aholkularitza, laguntza teknikoa eta bitartekaritza), adinbagekoen babesa, erasoak, sexu-abusuak eta haur-testigantza.
2. Familia-zuzenbideko prozedurak.
3. Balorazio psikologiko eta soziofamiliarak, batez ere sexu-delitu eta etxeke indarkeriako biktimen kasuetan eta testigantza eta uko egitearen balorazioa.
4. Nortasun eta psikometria azterketa osagarriak egozgarritasun-balorazioetan eta ezintasun-egoeretan.

■ GALDERAK:

1. Zein erakunderen menpe dago Talde Psikosozial Judiziala?  
.....
2. Nork eskatu ahal dizkio txostenak eta TPJri?  
.....
3. Non du egoitza TPJk?  
.....
4. Zein kasutan egiten da batez ere balorazio psikologiko eta soziofamiliarra?  
.....
5. Nortzuk osatzen dute TPJ?  
.....



## 07 ADINGABEKOAK

- Segidan, hiru inprimakiren gaztelaniazko bertsioak dituzu. Lotu bakoitza euskarazko bere ordainarekin. Inprimakiei izenburua falta zaienez, arretaz irakurri beharko dituzu zein den jakiteko.

A	B	C

A
<b>FISCALÍA DE MENORES DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DE LA C.A. DEL PAÍS VASCO</b>
...nº autos...
Número de Identificación General: ...número de identificación general...
Menor/es: ...nombre y apellidos...
Abogado: ...nombre completo abogado...
Por tenerlo así acordado en el Expediente arriba indicado pongo en su conocimiento que el mismo ha sido archivado por haber prescrito los hechos denunciados conforme establece el art. 10.1 de la Ley Orgánica 5/2000.
En consecuencia, y no siendo de aplicación lo dispuesto en el art. 64 de la misma para el ejercicio de acciones civiles informo a Vd. que podrá ejercitar la acción de resarcimiento por los daños y perjuicios sufridos como consecuencia de los hechos que han sido declarados prescritos, a través de la jurisdicción civil ordinaria.
En ...nombre de la ciudad..., a ...fecha mixta...
EL/LA FISCAL
...insertar destinatario...

<b>B</b>
<b>FISCALÍA DE MENORES DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DE LA C.A. DEL PAÍS VASCO</b>
...nº autos...
Número de Identificación General: ...número de identificación general...
Menor/es: ...nombre y apellidos...
Abogado: ...nombre completo abogado...
<p>Por tenerlo así acordado en las D. Preliminares arriba indicadas, pongo en su conocimiento que respecto de la denuncia formulada por Vd. por hechos presuntamente cometidos por el/los menor/es <b>...nombre y apellidos...</b> ha recaído una resolución de Archivo por no ser constitutivos de delito, y tenerlo así previsto el art. 16.2 de la L.O. 5/2000, haciéndole saber que puede instar en la vía civil la reparación del daño y de los perjuicios que haya podido sufrir con motivo de los hechos denunciados.</p>
En ...nombre de la ciudad..., a ...fecha mixta...
EL/LA FISCAL
...nombre y apellidos destinatarios del oficio...

C
<b>FISCALÍA DE MENORES DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DE LA C.A. DEL PAÍS VASCO</b>
...nº autos...
Número de Identificación General: ...número de identificación general...
Menor/es: ...nombre y apellidos...
Abogado: ...nombre completo abogado...
<p>Por tenerlo así acordado en Expediente arriba indicado y, conforme a lo establecido en el art. 27.1 de la Ley Orgánica 5/2000, intereso de ese Equipo la elaboración de un informe, o actualización de los anteriormente emitidos, que deberá ser concluido en el plazo máximo de DIEZ DÍAS, prorrogable, por un periodo no superior a un mes en casos de gran complejidad, sobre la situación psicológica, educativa y familiar del menor ...nombre y apellidos... , así como sobre su entorno social, y en general sobre cualquier otra circunstancia relevante a los efectos de la adopción de alguna de las medidas previstas en la presente ley.</p>
Se adjunta copia de las actuaciones.
Una vez se realice el referido informe será remitido a esta Fiscalía original y copia del mismo.
En ...nombre de la ciudad..., a ...fecha mixta...
EL/LA FISCAL
EQUIPO TÉCNICO DE LA FISCALÍA DE ...nombre de la ciudad...



1
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ADINGABEEN FISKALTZA</b>
...auto-zk...
Identifikazio Zenbaki Orokorra: ...identifikazio-zenbaki orokorra...
Adingabea: ...izen-abizenak...
Abokatua: ...abokatuaren izen-abizenak...
Goian zehaztutako espedientean erabakitakoarekin bat, eta 5/2000 Lege Organikoko 27-1 art.an xedatutakoari jarraiki, ...izen-abizenak... adingabeari buruzko txostena egiteko edo lehendik eginda daudenak eguneratzeko eskatzen diot Lantalde horri. ...izen-abizenak... adingabearen egoera psikologikoa eta hezkuntza- edo familia-egoera azaldu behar dira txostenean, bai eta gizarte-inguru-nea ere, eta, oro har, lege honetan ezarritako neurriak hartzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein inguruabar. Txostena egiteko gehienezko epea HAMAR EGUNEKOA da, eta, auzia oso konplexua izanez gero, gehienez ere hilabete luzatu ahal izango da epea.
Jarduketan kopia doa honekin batera.
Aipatutako txostena egindakoan, Fiskaltza honetara bidali behar dira jatorrizkoa eta kopia.
...herriaren izena..., ...data mistoa...
FISKALA
...herriaren izena... -KO FISKALTZAKO LANTALDE TEKNIKOA

2
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ADINGABEEN FISKALTZA</b>
...auto-zk....
Identifikazio Zenbaki Orokorra: ...identifikazio-zenbaki orokorra...
Adingabea: ...izen-abizenak...
Abokatuak: ...abokatuaren izen-abizenak...
Goian zehaztutako espedienteen erabakitakoarekin bat, aditzera ematen dizut aipatu espedienteak artxibatu egin dela, salatutako egitateak preskribatu egin direlako 5/2000 Lege Organikoko 10-1 art.ari jarraiki.
Ondorioz, akzio zibilak egikaritzeko ez da aplikagarria 64. art.an xedatutakoa, baina jakitera ematen dizut kalte-galerak medeatzeko akzioa egikaritu ahal izango duzula jurisdikzio zibil arruntean, preskribituzat jo diren egitateen ondorioz sortutako kalte-galeren ordaina erreklamatzeko.
...herriaren izena..., ...data mistoa....
FISKALA
...zehaztu nori zuzentzen zaion...

3
KALTETUARI ESPEDIENTEA ARTXIBATU IZANAREN BERRI EMATEA, ADINGABEA 14 URTETIK BEHERAKOA IZATEAGATIK
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ADINGABEEN FISKALTA
...auto-zk...
Identifikazio Zenbaki Orokorra: ...identifikazio-zenbaki orokorra...
Adingabea: ...izen-abizenak...
Abokatua: ...abokatuaren izen-abizenak...
<p>Goian zehaztutako aurretiazko eginbideetan ebazpena eman da, eta artxibatu egin da ustez ...izen-abizenak... adingabeak egindako egitateak zirela-eta aurkeztu zenuen salaketa; izan ere, adingabeak ez ditu 14 urte bete, eta 5/2000 Lege Organikoko 3. art.an ezarritakoa bete behar da. Administrazioko agintari eskudunei ezagutzera eman zaie, adingabearen babesean jardun dezaten. Jakitera ematen dizut, halaber, bide zibilean eska dezakezula salatutako egitateen ondorioz jasan dituzun kalte-galeren ordaina.</p>
...herriaren izena..., ...data mistoa...
FISKALA
...izen-abizenak... EGOITZA: ...egoitza... PK: ...herria...

## 07 ADINGABEKOAK

Aukera itzazu testu honetako hutsuneak betetzeko hitz egokiak hurrengo orrialdetik.

Adinak gauzen eta pertsonen [1] .....adierazten du. Zehatzago esanez, adina da pertsona jaiotzearen bitartean daraman denbora: bakoitzak dituen urteak. Pertsonaren adina, logikaz, bere [2] ..... hasten da kontatzen, eta kontaketa hau iragan diren urteena izan ohi da.

Gizakiaren bizitzako garai jakin batzuk aipatzeko ere erabiltzen da: haurtzaro, gaztaro, zahartzaro, etab.

Pertsona jaiotzeko unetik beretik, [3] ..... eta [4] ..... juridikorik duena baldin bada, eskubide eta obligazioen [5] ..... ere izan daiteke; eta gizakiak jaiotzean hartzen duen nortasun eta gaitasun juridiko honi heriotzaraino eusten dio.

Baina [6] ..... eta obligazioen tituludun izateko gaitasuna izan arren, mundu juridikoan jarduteko [7] ..... edo gaitasuna —jarduteko gaitasuna edo gaitasun betea delakoa— [8] ..... ez dio pertsonari lehen unetik ematen: [9] ..... eta negozio juridiko ezberdinetan eta maila guztietan —zibil, penal, merkataritza, politika, administrazio eta beste mailatako egintzetan— [10] ..... jarduteko gaitasuna, alegia. Horietakoak dira ezkontzea, lanean hastea, botoa ematea, soldadutzara joatea, kontratuak egitea, beste norbaitekin obligatzea, etab. Legeak [11] ..... dituen adin ezberdinetara heldutakoan, orduan [12] ..... da gaitasun hori.

Adina, beraz, —legezko urteak, alegia—, pertsonaren gaitasun juridikoaren denborazko [13] ....., muga, zirkunstantzia edo kausa aldarazlea izango litzateke.

Horren guztiaren funtsean, pertsonaren era ezberdinetako [14] ..... (denborazkoa, fisikoa eta adimenezkoa) elkarren parean eta pausoz pauso egiten delako ideia dago, hau da, pertsonak juridikoki jarduteko behar dituen askatasun, [15] ..... eta borondateak lehen unetik ez, baina bizitzako esperientziaren ondorioz izaten dituzenez, legeak ere gizakiari denborazko [16] ..... batzuk ezartzen dizkio jardura juridiko ezberdinetarako. Mugak, gehienetan, [17] ..... urteak izan ohi dira; baina, aldiz, gehienekoak ere bai: Lan-zuzenbidean, lana utzi eta erretiroa hartzekoak...

Adin-txikiko deitzen da: gaitasun juridikoa lortzeko legezko adinera oraindik heldu ez den pertsona. [18] ..... da: legez ezarritik dagoen adin horretara jadanik heldu dena. Bi adin hauen arteko muga, une bakoitzean begiratzen diren erlazio juridikoen arabera, aldatu egin ohi da.

Adin-nagusitasuna, urteak betez aparte, bestela ere lor daiteke: emantzipazioz, ezkontzaren bidez, etab.

Zuzenbide penalean: adin-txikitasuna zirkunstantzia [19] ..... edo aringarri izan ohi da; hots, [20] ..... kriminalik ezaren seinale.

1. iraupena/iraunkortasuna/edadea
2. jaiotetxetik/jaiotegunetik/jaiotik
3. nortasun/ezintasun/jakinduria
4. ezintasun/aniztasun/gaitasun
5. tituludun/eskudun/eskubidedun
6. eskumen/eskubide/deretxo
7. ahalmen/nortasun/adina
8. fiskalak/zuzenbideak/epaitegiak
9. egintza/egitza/egia
10. logikoki/bereziki/juridikoki
11. ezartzen/ezabatzen/aitortzen
12. etsitzen/erdiesten/heltzen
13. ondorio/auzia/baldintza
14. garapena/etsipena/adimena
15. ebazpen/adimen/xedapen
16. muga/oztopo/epe
17. gehiagozko/gutxienezko/gutxiagozko
18. adin-handikoa/zaharra/adin-nagusikoa
19. salbuesle/erantzule/miresle
20. entzumen/betebehar/erantzumen



8. Zuzenketa-orriak ✓

 Inprimakiak betetzen

LEKUKOEN AGERRALDIAREN ZIURTAGIRIA
...herriaren izena...-[E]KO ADINGABEEN ...epaitegi-zk...
ZK.KO EPAITEGIA
...organo judizialaren egoitza...
Telefonia: ...organo judizialaren telefono-zk...
Faxa: ...organo judizialaren fax-zk...
...auto-zk...-...prozedura-sekzioa...
Fiskaltza-zk.: ...jatorriko prozeduraren zk...
IZO: ...identifikazio-zenbaki orokorra...
Atestatu-zk.: ...salaketaren jatorria...; ...atestatua...
Salatutako egitatea: ...salatutako egitatea...
Adingabea: ...izen-abizenak...
Abokatua: ...abokatuaren izen-abizenak...
...idazkariaren izen-abizenak... ...herriaren izena...-[E]KO ADINGABEEN ...epaitegi-zk... ZK.KO EPAITEGIKO IDAZKARI JUDIZIALAK
ONDOKOA ZIURTATZEN DUT:
1.- Organo judizial honek ...izen-abizenak... jn./and. zitu zuen ...zehaztu zein herritan egin zaion zitazioa...-[e]n, goian aipatutako auzian lekuko gisa deklaratu zezan. Zitazioan agindu bezala, ...izen-abizenak... jn./and. Auzitegi honetan agertu da ...zehaztu agerraldiaren data...-[e]an, eta agerraldiak ...zehaztu zein orduatik...-[e]tik ...zehaztu zein ordutara...-[e]ta)ra irauten du.
2.- Organo judizial honek ez dio inongo kalte-ordainik eman.
3.- Ez da demandatu gisa agertu.
4.- Deklaratzeraz deitzeko arrazoia ez da izan auziko gertakarietan funtzionario gisa, edo Estatuko, EAEko nahiz tokiko Administrazioaren mende dauden Segurtasun Indar eta kideetako kide gisa parte hartu izana. ...herriaren izena...-[e]n, ...data letraz idatzita...-[e]an.
IDAZKARI JUDIZIALA



## Epaitegiko hiztegia

### Galderak eta erantzunak

#### Nork eska dezake, baina, Babesteko Agindua?

Ondorengo pertsonak dira Babesteko Agindua eskatzea dutenak: biktima bera edo harekin Kode Penaleko 153. artikuluan aipatutako adeitasun-harremana duen edonor, hau da, ezkontideak edo biktimarekin ezkontzaren antzeko **afektibitate-harreman** egonkorra izan duen edo duen pertsonak, biktimaren, ezkontidearen edo biktimaren bizikideren seme-alabak, haren ardurapekoak, harekin bizi diren aurrekoak edo ezinduak edo izatez biktimarekiko edo haren bizikidearekiko **guraso-aginte**, tutoretza, kuratela, harrera edo zaintza harremana dutenak. Epailleak edo **Ministerio Fiskalak** eskatuta ere egongo da Babesteko Agindua ematea.

#### Non eskatu behar da Babesteko Agindua?

Babesteko Agindua zuzenean eska dakieke **agintari judizialari**, Fiskaltzari edo Segurtasuneko Indar eta Kidegoei, baita biktimari laguntzeko bulegoetan edo administrazio publikoen baitako **gizarte-zerbitzu** edo laguntza-erakundeetan ere.

#### Nola eskatu Babesteko Agindua?

Babesteko Agindua eskatzeko **formulario edo Babesteko Agindua** eskatzeko eredia taxutu da, eta ezinbestekoa da horrelako idazkiak zenbait erakundetan egotea: organo judizial guztietan zibil zein penaletan, fiskaltzetan, biktimari laguntzeko bulegoetan, herritarrari laguntzeko bulegoetan, **abokatuen elkargoen orientazio juridikoko zerbitzuetan**, polizia-bulegoetan eta **gizarte-zerbitzuetan** eta laguntza erakundeetan.

Eskabidea betetzeko jarraibideak berarekin batera doaz; nolana ere, komeniko litzateke eskabidea jasotzen duen organismoak biktimari berori betetzen laguntzea.

#### Zer egin behar da Babesteko Agindu bat jaso ondoren?

Behin Babesteko Agindu bat formalizatu ondoren, berori jaso duen **erakundeak** kopia bat eman behar dio **eskatzaileari**, beste bat gorde berarentzat, eta tokiko guardiako epaitegira jatorrizkoa bidali.

#### Zenbat Babesteko Agindu izan dezake pertsona batek?

Biktima bakoitzari buruzko Babesteko Agindu bakarra egon daiteke. Aginduaren **edukia** aldatzea egongo da, salatutako egoera aldatuz gero, baina ez da egongo aldi berean beste Babesteko Agindua egiterik egongo.



### Autoebaluazioa

- 1. Justizia Salburuordetzaren menpe.
  - 2. Organo judizialak eta fiskaltzak.
  - 3. Lurralde Historiko bakoitzean bat dauka.
  - 4. Sexu-delitu eta etxeko indarkeriaren biktimen kasuetan.
  - 5. Psikologo, gizarte-laguntzaile, hezitzaile eta administrariak osatzen dute.

■ 1 c.

2 A.

3 B.

A	B	C
2	3	1





Adinak gauzen eta pertsonen **iraupena** adierazten du. Zehatzago esanez, adina da pertsona jaio zenetik bizitzen daraman denbora: bakoitzak dituen urteak. Pertsonaren adina, logikaz, bere **jaiotegunetik** hasten da kontatzen, eta kontaketa hau iragan diren urteena izan ohi da.

Gizakiaren bizitzako garai jakin batzuk aipatzeko ere erabiltzen da: haurtzaro, gaztaro, zahartzaro, etab.

Pertsona jaiotzeko unetik beretik, **nortasun** eta **gaitasun** juridikorik duena baldin bada, eskubide eta obligazioen **tituludun** ere izan daiteke; eta gizakiak jaiotzean hartzen duen nortasun eta gaitasun juridiko honi heriotzaraino eusten dio.

Baina **eskubide** eta obligazioen tituludun izateko gaitasuna izan arren, mundu juridikoan jarduteko **ahalmen** edo gaitasuna —jarduteko gaitasuna edo gaitasun betea delakoa— **Zuzenbideak** ez dio pertsonari lehen unetik ematen: **egintza** eta negozio juridiko ezberdinetan eta maila guztietan —zibil, penal, merkataritza, politika, administrazio eta beste mailatako egintzetan— **juridikoki** jarduteko gaitasuna, alegia. Horietakoak dira ezkontzea, lanean hastera, botua ematea, soldadutzara joatea, kontratuak egitea, beste norbaitekin obligatzea, etab. Legeak **ezartzen** dituen adin ezberdinetara heldutakoan, orduan **erdiesten** da gaitasun hori.

Adina, beraz, —legezko urteak, alegia— pertsonaren gaitasun juridikoaren denborazko **baldintza**, muga, zirkunstantzia edo kausa aldarazlea izango litzateke.

Horren guztiaren funtsean, pertsonaren era ezberdinetako **garapena** (denborazkoa, fisikoa eta adimenezkoa) elkarren parean eta pausoz pauso egiten delako ideia dago, hau da, pertsonak juridikoki jarduteko behar dituen askatasun, **adimen** eta borondateak lehen unetik ez, baina bizitzako esperientziaren ondorioz izaten ditueneguz, legeak ere gizakiari denborazko **muga** batzuk ezartzen dizkio jarduerari juridiko ezberdinetarako. Mugak, gehienetan, **gutxieneko** urteak izan ohi dira; baina, aldiz, gehienezkoak ere bai: Lan-zuzenbidean, lana utzi eta erretiroa hartzekoak...

Adin-txikiko deitzen da: gaitasun juridikoa lortzeko legeko adinera oraindik heldu ez den pertsona. **Adin-nagusikoa** da: lege ezarriarik dagoen adin horretara jadanik heldu dena. Bi adin arteko muga, une bakoitzean begiratzen diren erlazio juridikoen arabera, aldatu egin ohi da.

Adin-nagusitasuna urteak beteaz aparte, bestela ere lor daiteke: emantzipazioz, ezkontza bidez, etab.

Zuzenbide penalean: adin-txikitasuna zirkunstantzia salbuesle edo aringarri izan ohi da; hots, erantzumen kriminalik ezaren seinale.

# OHARRAK

A series of 20 horizontal dotted lines for writing notes.